



Beasain berrian

hari gara

ehbildu

Beasain berrian

ari gara

eh



Aldaketa gauzatz



Editoriala

B easainen eraldaketa abiatu besterik ez dugu egin, denbora eta herritar guztion ahotsa eta eskuak beharko ditugu eginkizun zoragarri horrekin jarraitzeko.

Ez gara eraikin, plaza, bidegorri edo kale berritze hutsez ari. Hori baino zerbait gehiago izan behar du pasa den mendeko porlan mentalitate batetik pertsonen eta inguruaren elkarbizitza orekaturako trantsizioa.

Hurrengo hamarkadetakarako Plan Orokorra abian da, bertan beasaindarrok izan behar dugu protagonista nagusiak, gure nahiak, ilusioak, ametsak, kritikak, azken batean gu guztion ekarpenak gauzatu behar dute eredu aldaketa.

Lau urtetik behin iritzia ematetik, egunerokora pasa behar dugu, parte hartze zuzena ahalbideratzeko egon diren oztopoak gainditzen ari gara, egiteko asko geratzen den arren.

Esku artean dituzuen ideia, proposamen eta lanerako irizpide nagusienak, lau urte hauetan zuekin izandako hartu emanetatik ateratakoak direla ohartuko zineten. Jakina da hemen biltzen ditugun asmo hauek

gauzatu ahal izateko, ezer baino lehen aurrerontu ahalmen handiagoa behar dela.

Beharrezkoak izango ditugu zuen eguneroko ekarpenak ere. Egitasmo hau osatzeko izan ditugun bezala, konpromisoak gauzatzeko ere hor izatea bilatuko dugu. Ez gara nekatuko herritarren parte hartze zuzenean iraulketa gauzatu arte.

Azkenik herrigintzan aurrera egiteko beste osagai garrantzitsu bat ere eskaini nahi dizuegu, ordezkaritza politikoa osatzen dugunon arteko garai berri baterako konpromisoa hartzen dugu. Azken lau urte hauetan gure ekarpena begi-bistakoa izan da, eta aurrerantzean ere Udalean liskar girotik elkarlanera pasako gara, sentsibiltate politikoen interesen gaintetik, herritarrrona jarriko dugu beti.

Esandako hauek gehi egitasmo honetan azaltzen direnak aurrera eramateko, pertsona talde anitza, eskarmentatua, gogotsua eta herritarrekin konprometitua aurkezten dizuegu.

Pozik sentituko gara idatzitakoak zuen irudimena eta parte hartzeko gogoia piztuko badute, eta hala denean, elkar ikusi eta hitz egingo dugulakoan agurtzen gara.

Los tiempos de cambio en Beasain ya han comenzado. Tenemos una tarea fascinante por delante, una responsabilidad que debemos compartir con vosotras y vosotros.

De la etapa del hormigón que nos ha llevado a una total ocupación del suelo, debemos acometer las transformaciones que hagan de Beasain un entorno pensado por y para las personas, donde el interés prioritario sea el bien común y no como hasta ahora el negocio de las constructoras.

Esa función tendrá el recién iniciado Plan General, que deberá defender el interés público y será elaborado con la colaboración de todos los agentes implicados.

Las propuestas que tenemos el gusto de compartir, han sido recogidas con vuestras aportaciones, y para llevarlas a cabo os presentamos también un grupo de personas que comparten experiencia, juventud, ilusión y sobre todo ganas de poner Beasain en un rumbo diferente acorde a los nuevos tiempos. Esperamos que estas aportaciones sirvan para profundizar en una participación plena de todos y todas en la labor que nos toca.



Parte hartzea

Herri borondatearen garaia delako eta parte hartzea udal funtzionamendu eta erabaki guztietan txertatzea beharrezko ikusten dugulako, berau arautzeko ordenantza onartuko dugu.

Aurrekontu parte-hartzaileak gauzatzeko bidean lanean jarraituko dugu, urteko eztabaida garrantzitsuenera eragile eta auzotarren ekarpenak bilduta iritsiz.

Ezkiagan hasitako bidea jarraituz, urtero partida bat bideratuko dugu herritarrek zuzenean kudeatzeko. Gainera, urteroko erabaki garrantzitsuenak hartzeko kontsultak egingo ditugu, auzoka, herri osoan edota interesatuen eremuetan. •

Hemos abierto el camino para dar la palabra a la ciudadanía con el objetivo de construir Beasain conjuntamente.

Euskara

EAJK desegin zuen Euskara zerbitzua eta Batzordea berreskuratuko dugu, euskararen normalizaziorako bidean hizkuntzaren erabilera zehar-lerroa izanik, saila zegoenera ekartzea beharrezkoa delako.

Euskararen normalizazio bidean eragileekin batera osatutako arautegi edo ordenantzari irtenbidea emateko konpromisoa hartzen dugu, Espainiar Ordezkaritzaren in-pugnazioa gaindituz.

Onartutako Plan Estrategikoaren garapena bultzatuko dugu bereziki merkataritzan, kirol bizitzan, enpre-

setan, ikastetxeetan zein kalean diharduten eragileekin, sentsibilizazioa eta ekarpena landuz.

Euskara ikasi nahi duten herritarrentzat doakoak izango diren euskalduntze eta alfabetatze programa bereziak sustatu, lagundu eta antolatuko ditugu, bereziki etorkin, langabetu, guraso zein erretiratuak begira. Erabilpena indartzeko bidean, euskararen erabilera eta eza-gutzaren neurketak egingo ditugu, eta jasotako emaitzen arabera programa bereziak landuko ditugu.

Kontseiluarekiko elkarlana indartuko dugu. •



Participación

- Aprobar la ordenanza de participación ciudadana.
- Insertar la participación en el funcionamiento municipal y en todas las tomas de decisiones.
- Es hora de la voluntad ciudadana.
- Seguir trabajando para conseguir unos presupuestos participativos.
- Crear partidas anuales gestionadas directamente por la ciudadanía.

Euskara

- Recuperar la comisión de euskara que deshizo el PNV.
- Darle salida a la ordenanza creada junto con la ciudadanía, superando las impugnaciones estatales.
- Fomentar el desarrollo del Plan Estratégico en los diferentes ámbitos de Beasain y, también, los cursos gratuitos y los programas específicos para los sectores que más lo necesiten.



Landa eremua

Auzoekin hasitako elkarlan bidean, kudeaketa autonomia eta ahalmena bultzatzen ahalginduko gara, beharrak auzoetatik bertatik identifikatu eta irtenbideen lehenbideen bertan erabakiz eta etorkizunaren bideragarritasuna aztertzekeo bitartekoak jarritz.

Auzoetan bizi direnei, askotan erabili ez eta ezezagun dituzten zerbitzu aukeren eskaintza helaraziko diegu eta garraio eta komunikazioan sakonduz jarraituko dugu.●



Gazteria

Gazteei zuzenean eragiten dizkieten gaiak landu, eztabaidatu eta bideratzeko gunea izango den mahaia sortuko dugu, bertan gazteek zuzenean parte hartuko dutelarik.

Udal ekipamenduak egokituko ditugu, Gaztelekua handituz. Era berean ogasun departamentutik, enplegu eta etxebizitza gaietan, gazteen errealitateari bideratutako erabakiak hartuko ditugu.

Gazte ekintzaileen ekimenak bultzatzeko bitartekoak jarriko ditugu.●

Gazteei hitza emateko guneak ezinbestekoak dira.

Ingurumena mugikortasuna

Beasaingo ondare naturalaren inbentarioa egin eta zabalduko dugu, kontserbazio planarekin batera.

Lurjabeekin hitzarmenak sinatuko ditugu, lur eremuen zaintza egiteko. Bide batez Arriarango urtegiaren ingurunea berreskuratu eta balioes- teko baliabideak jarriko ditugu, herri bideak berreskuratuz.

Mugikortasun planaren barruan, oinezko zein bizikletaren aldeko il- doarekin jarraituko dugu, bidegorri sarea osatuz, azpiegiturretan eman beharreko aldaketak gauzatzu eta trafiko mailan eman beharreko ego- kitzapenak burutuz.●



Entorno rural

- Dar continuidad al trabajo en común generado en los barrios.
- Identificar y dar salida a los problemas de los barrios desde los propios barrios.
- Marcar las prioridades y la viabilidad de los proyectos con las personas de los barrios.

Juventud

- Crear un foro donde las personas jóvenes debatan, trabajen y encaminen aquellos temas que les incumban directamente.
- Tomar decisiones en temas de empleo y vivienda, temas que afectan directamente a la juventud.
- Poner medios para apoyar a jóvenes emprendedores.

Medioambiente/movilidad

- Inventariar el patrimonio natural.
- Recuperar la zona del pantano de Arriaran y los caminos rurales.
- Completar la red de bidegorris.



Udal antolakuntza

Herriarrei zerbitzu duin bat emateko udaleko langile taldea indartuko dugu, eta lanketa horizontala bultzatuko dugu. Privatizatuta dauden zerbitzuak Udalak berreskuratzeko lanketa martxan jarriko dugu, lorezaintza, kale garbiketa, lgartza...•



Organización municipal

- Reforzar la plantilla municipal para ofrecer un buen servicio a la ciudadanía.
- Recuperar los servicios privatizados.

Zerbitzuak

Udaleko lan brigadaren indartzea bultzatuko dugu, privatizazio eskemari aurre egin eta udalerriko kale zein altzarien mantentze eraginkorra bultzatuz.

Hondakinen birziklapen tasak %60a gainditzeko konpromisoa gauzatzeko, birziklapena borondatezko izatetik betebeharra izatera pasako dugu.

Eraginkortasun energetikoarekin hasitako programaren bidean jarraituko dugu. Kale argizatzearen berrikuntza amaitu eta eraikin publikoena prestatuko dugu.•



Economía y empleo

- Mejorar la situación de las personas paradas de larga duración.
- Fomentar la creación de empleo y auto-empleo.
- Apoyar el consumo local.

Ekonomia eta enplegua

Epe luzeko langabetuentzako lan-hezkuntza programak sortzeko dinamika jarriko dugu abian, eta enplegu sorrera edo auto-enplegua helburu izango duten lehiaketaren oinarriak aterako ditugu.

Beasaingo merkatariekin batera, bertako kontsumoa sustatzeko txanpon propioa sortzeko ideia lankidulari dugu.

Eraikin publikoetan energi kontsumoaren inguruko azterketak burutu eta hauen ondorioak aplikatuko ditugu.•


Servicios

- Reforzar la brigada de obras municipal.
- Hacer frente al esquema de privatización.
- Superar el 60% en materia de reciclaje.
- Continuar con el programa de eficiencia energética.



Berdintasuna

I Berdintasun Plana onartuta, honek markatuko dizkigu datozen urteetarako lan ildoak. Barne mailan eta herri mailan jarraitu beharreko bidea herritarrekin identifikatu eta landu dugu. Berdintasunerantz eman beharreko pausoak gure eguneroko lanean jorratzen jarraituko dugu.●



Aniztasuna

Beasaingo biztanleen mosaikoa osatu behar dugu, argazki horrek emango baitigu errealitatean dauden gabezien berri. Hortik pertsona ororentzat eskubide eta aukeren berdintasuna bultzatzeko ekimenak sortuko ditugu.

Horretarako lehenik eta behin harriera protokoloa osatuko dugu, gureganatzen direnei lehen unetik bertako errealitatea ezagutzen, errespetatzen eta elkarrekin eraikitzen lagunduz.●

Elkar ezagutza eta aitortpena dira elkarbizitzarako oinarriak.


Etxebizitza

Etxebizitza beharraren neurketa zehatza egin behar da, bizitegirako lurzoru berriaren sailkapena egokituz. Etxebizitza sustapen berriak behar izatekotan hiriguneko edota jada urbanizatutako eremu hutsak eta hondamendi egoeran daudenak erabiliko ditugu.

Etxe zaharren berrikuntzan jabeekin hitzarmenak sinatuko ditugu, Udalak berrikuntza sustatuz etxe horien merkaturatzea lortzeko. Honekin batera irisgarritasuna hobetzeko laguntza politikak arautuko ditugu.

Hirigunearen hazkundera eta eremu naturalen zein nekazal lurren okupazioa dakarten bizitegi garapenak bertan behera uztea: Errekarte I eta II, Arizmendi, Dr. Fleming, Antzizar eta Ugartemendi eremuen aurreikuspenak berraztertu eta, dagokionean, ez urbanizagarri egoerara itzuli.

Etxebizitza tasatuak guztiz baztertu eta babes ofizialekoak mugatuko ditugu, sustapen publiko berriak alokairura bideratuz.●



Igualdad

- El Plan de Igualdad, trabajado junto con la ciudadanía, marcará la ruta de trabajo a seguir durante los próximos años.
- Seguir dando los pasos necesarios hacia la igualdad.

Diversidad

- Creación del protocolo de recepción.
- Realizar la foto de la realidad multicultural de Beasain.
- Mismos derechos y oportunidades para todas las personas.

Vivienda

- Definir la necesidad real de vivienda.
- Clasificar el suelo urbano en base a dicha necesidad.
- Utilizar las zonas ya urbanizables para el fomento de nueva vivienda.
- Política de ayudas para la renovación de viviendas y mejoras en accesibilidad.
- Suspender los proyectos de urbanización que invadan zonas rurales.
- Encaminar las nuevas viviendas de fomento público hacia el alquiler.



Plan orokorra

Hiriguneeen eta urbanizatutako azaleraren neurrigabeko hazkundeak, eremu naturalen okupazio arduragabeak, inolako etekin sozialik gabeko azpiegitura erraldoi eta garestien eraikuntzak, gehiengoaren beharretara baino gutxi batzuen etekinerara bideratutako ereduak porrot egin du.

Beraz Plan Orokorrak herritarren parte hartzearen bitartez etengabeko hazkudearen aurka, ingurumena eta baliabide naturalen babesa bultzatu beharko du:

- Landa auzoen biziberritze integrala, auzoetatik auzoetara sustatuko den garapena.
- Hiriguneean, herritar guztiekin trenbidearen eta errepide sare nagusien inguruko eztabaida sozial irekia abian jarriko dugu.
- Ekipamendu publikoen inguruko eskualdeko ikuspegia indartu behar dugu.
- Energia aurrezpena eta eragin-kortasuna sustatu, energia burujabetzarantz urratsak emanez. •



Hirigintza

Zerbitzu teknikoaren sorrera eta Udal Arkitektoa kontratatzea ezinbestekoak dira, herriaren dimentsioagatik eta arlo honetan ematen diren iluntasun eta interesen aurrean gardentasuna bultzatzeko. Norabide honetan Beasain Lantzenen kudeaketa teknikoa Udalak bereganatu behar du, hirigintza politika publikoak eraikitzaileen interesetik kentzeko.

Hiriaren zabalkundearen, landa eremuarekiko talka ereditutik trantsizio leunago eta orekatuago batera joko dugu, urteetan egindako zauriak sendatuz. Eraikitzaileen eredu liberalarekin amaitu behar dugu, berriz ere dirua egitera datozenerako, irizpide publikoak finkatuz.

Hiriguneearen berritzearekin jarraituz, San Inazio eta Esteban Lasaren biziberritzeari ekingo diogu, Erauskin Plazaren egokitzea eta Dolarea Parkearen berrikuntzak gauzatu. Zazpiturrieta kaleko espaloia ere zabalduko dugu. Ezkiaga auzoko irisgarritasun programa integrala adostu beharko dugu.

Gainera, Renfe-Adif-ek dituen lur eremuen berreskuratze estrategikoan lan egingo dugu, herriaren zabalgu naturala hori izan behar duelako.

Azkenik, Olanan, onura publikorako ekipamendu gisa hartuta, herriko beharren berrantolaketan izango duen funtzioa definitu eta egitasmoa bideratu behar dugu. •



Plan general

- Protección del medio ambiente y los recursos naturales.
- Arrancar el debate sobre la vía del tren y la red principal de carreteras de la zona.
- Reforzar la perspectiva comarcal en referencia al equipamiento público.
- Dar pasos hacia la soberanía energética.

Urbanismo

- Creación del Servicio Técnico y contratación de un arquitecto.
- Asumir la gestión técnica de Beasain Lantzen para fortalecer la política pública de urbanismo.
- Establecer criterios públicos frente a los modelos liberales de construcción.
- Renovación de las calles San Inazio y Esteban Lasa. Acondicionar la plaza Erauskin y el parque Dolarea. Ampliación de la calle Zazpiturrieta.



Ongizatea

Beasainen bizi eta behar larriak dituen inor ez dadila laguntzarik gabe egon.

Premia larriari bizi diren herritarren arreta errazteko laguntzen gida kale-ratu eta egoeraren arabera irtenbide egokienak aurkeztuko ditugu.

Herritarren errolda bermatuko dugu, oinarrizko eskubideetarako sarbidea lor dezaten.

Gizarte zerbitzuen sistema publikoa indartuko dugu, ekimen pribatuari mugak jarritz.

Udalen eta lurraldearen arteko desoreka eta desberdintasunak gainditzeko gizarte zerbitzuen sistema bateratuagoak izatea bultzatuko dugu.●

Es necesario reforzar el sistema público de los servicios sociales, poniendo límites a la iniciativa privada.

Hezkuntza

Hezkuntzaren funtzio sozialean dauden premia edo gabezien diagnosia egingo dugu, ondoren ekintza programak bideratu eta bazterketa zorian dauden sektoreak laguntzeko.

Udalak, hezkuntza agenteekin elkarlanean, gizarte baloreen zaintzan laguntzeko, diagnosi eta indartze programak adostuko ditu.

LOMCEri dagokionez, ez aplikazioa bultzatuko dugu beharrezkoa den babes juridiko, politiko, administratibo eta soziala bermatuz. LOMCEren aurkako herria izango gara.

Eta herriko Eskola Kontseiluaren sorrera eman ondoren, honen egonkortzea eta indartzea bultzatuko dugu.●



Bienestar social

- Publicación de la guía de servicios destinados a aquellos que más lo necesiten.
- Garantizar el empadronamiento y de este modo los derechos básicos.

Educación

- Diagnosticar las necesidades de la función social de la educación.
- Poner en marcha programas que cubran dichas deficiencias, para ayudar a los sectores más necesitados.
- No apoyaremos la LOMCE. Seremos un municipio contrario a la LOMCE.
- Estabilizar y reforzar el consejo escolar municipal.



Kultura

Igartzako Kultur mahaia bultzatuko dugu, izaera autonomoarekin kultur eragileen sarea elkarlanean jarri, koordinatu eta sormena sustatuz.

Udalaren kultur programazio propioa sendotuko dugu, kultura aniztasuna bultzatuz, kultur adierazpide ororen arteko oreka mantenduz.

Kultur ekipamenduen egoeraren hausnarketa eta berrantolaketa prozesu bat abian jarriko dugu, Musika Eskola eta Liburutegiarentzako kokapen berriak aurkituz eta lkas gelak egokituz. Usurbe Antzokia egungo beharretara egokitzeko lanak egingo ditugu.

Kultur sortzaileen habiak sustatzeko programa sortuko dugu, kultur espresio garaikideak bideratzeko oinarriak jarritz.

Kultur ekipamenduen egoeraren hausnarketa eta berrantolaketa beharrezkoa da.

Kirola

Kirol arlo desberdinak bateratuko dituen mahaia osatuko dugu (eskola kirola, kirol federatua, ikastetxeak eta udala), hauen arteko koordinazioa sustatu eta indartzeko. Herriko kirol talde guztien jarduna babestu eta elkarlana sustatuko dugu.

Horrekin batera kirol gune publikoen eta herri kirol teknifikazio zen-

tro berriaren erabilera sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Kirola herriko esparru desberdinetara zabaltzeko helburuarekin, herrian zehar kirol-gune desberdinak egokitzeko ditugu. Azkenik kiroldegia kudeaketa eta eraikinari buruzko azterketa sakon bat egingo dugu, egungo eredu pribatuari irtenbideak bilatzeko.



Cultura

- Apoyar e incentivar la Mesa de Cultura de Igarza.
- Reforzar la programación municipal.
- Abrir la reflexión sobre la situación de los equipamientos culturales:
 - Nueva ubicación para Musika Eskola y Biblioteca.
 - Reestructuración del cine.
 - Etc.

Deporte

- Crear una mesa que aúne las diferentes modalidades deportivas (escolar, federado, colegios y ayuntamiento).
- Fomentar el uso de zonas públicas deportivas y del centro de tecnificación del deporte rural.
- Acondicionar diferentes zonas deportivas en el municipio.
- Examen de la gestión y del edificio del polideportivo para tratar de darle salida al modelo privado.



Gipuzkoarrok garaile



Xabier Olano Jauregi

Altzon (Gipuzkoa) jaioa 1959an.

Ekonomia eta enpresa zientzietan lizentziatua 1982an Deustuko Unibertsitatean (ESTE Donostian)

Ogasuna eta finantza publikoetan aditua.

Hiruerrietako udal idazkari-kontuhartzailea 1982tik 1989ra

Usurbilgo udal idazkaria 1989tik 1991ra.

Usurbilgo udal kontu-hartzailea 1991tik 2011ra.

Altzoko Alkatea 1987tik 1991ra.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea 3 legealditan, 1991tik 2003ra.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaria 2011tik 2015ra

Gipuzkoako Ahalduen Nagusirako hautagaia, EH Bildutik.

Lau urte hauetan bultzatu ditugun ekimenek demostratu dute beste era batera goberna daitekeela, diru publikoarekin erabat garbiak izanez, azpiegitura handietan dirua xahutu gabe, eta gizarte politiketan murrizketarik egin gabe. Marraztu dugun bideak jarraipena izan dezan, ondo egin duguna izango da hurrengo legealdirako abiapuntua. Eta ez nahiko edo egin gabe utzi duguna zuzenduko dugu hurrengo legealdirako programan. Gipuzkoa berria zerumugan, berri-tze lanari segida eta sakontasuna eman nahian, hemen dituzue gure programaren ekimen edota puntu nagusiak:

1 Gizarte zerbitzuetarako itxaron zerrendak murriztea, dauden estaldurak handituz. Datorren hiru urtetan zerbitzu sozialetako 634 plaza berri irekiko ditugu.

2 Gizarte Zerbitzuetan Kopagoa murriztea: Ordain-tzetik libre dauden minimoak handitu eta doako zerbitzuak zabaldu.

3 Langileen lan baldintzak blindatu eta hobetu. Gure ardurapean dauden langile guztien lan baldintzak babestuko ditugu.

4 Pobrezia energetikoari aurre egitea. Gipuzkoako etheen %9ak ezin du elektrizitate eta gas fakturak ordaindu. Energia gastua jaisteko neurriak hartuko dira.

5 Enpresak salbatzeko eta laguntzeko zerbitzu publikoa: Arazoak dituzten enpresa txiki eta ertainentzat Diputazioak zerbitzu publikoa eskainiko du.

6 Industria berreskuratzeko inbertsio funtsa: Enpresen finantziario arazoari aurre egiteko inbertsio funtsa sortu eta Kutxabank bertako ekonomiaren mesedetan jarriko dugu.

7 Adineko langabetuak berriro laneratzeko plana: Aldi luzeko langabetuentzako babestutako lan merkatua sortuko dugu.

8 Sozietateen Mozkinen gaineko Zerga. Sozietate Zerga egokituko dugu, ihes-bideak ixteko eta eraginkorragoa izateko.

9 Umeen pobrezia aurre egiteko errenta. Familia eta batez ere seme-alaben babes indartzeko diru-laguntza, kenkari eta konpentsazioak emango dira.

10 Gipuzkoako Memoriaren Mapa: Biktima guztien egia, aitortza eta erreparazioa helburu, herrietan orain arte egindako ekimen guztiak eta herri horietan bildutako datuak jasoko ditugu.

11 Herritarren euskalduntzea doan: Helduen euskalduntzearen doakotasunerantz urratsak emango ditugu.



GOIERRI

GUZTION HERRI

Goierri, gure bailara, 18 herri txiki zein handiz osatua dago. Herrien arteko lotura eta elkarlana bultzatzearen alde lan egingo dugu datozen 4 urteotan. Goierriren onura orokorra herri bakoitzaren onurarekin lotuta dago. Herri guztiak dira beharrezko eta osagarriak Goierri hobea eraikitzeko. Horregatik herrien arteko elkarlana eta koordinazioa bultzatuko dugu arlo ekonomikoan, zerbitzuetan, euskaran zein kulturen, besteak beste.

Goierriarron kezka nagusia ekonomian kokatzen delako enpleguaren bidez aberastasuna banatu eta ongi-zatea eskuratzeko Goieki funtsezko tresna da. Datorren legegintzaldian garapen agentzia enpresara, tokiko merkataritzara eta herritarrengana hurbilduko dugu.

Bailarako mapa produktibo integrala osatuko dugu eta eskualdeko garapenaren norabidea arloko eragile eta herritarrekin adostea lehenetsuzkoa izango da gure jardueran.

Bestalde, behar gehien dituzten herritarren eskubideak bermatzeko kalitatezko gizarte zerbitzuak ezinbesteko direlako, aurten berreskuratutako Goiekiren arlo soziala indartzearen alde lan egiten jarraituko dugu.

Elikadura burujabetzaren norabidean nekazaritza iraunkor eta herrikoia sustatuko dugu, baserriarren bizi eta lan baldintza duinak bultzatu eta herritarrekin gertutasunean oinarritutako ereduak eraikiz Goimen landa garapen agentzian nekazaritzako elkarteekin elkarlanean arituko gara.

Gure helburua Goierri euskalduna, parekidea, elkartasunean nola garapen iraunkor eta orekatuan oinarritua, ingurumenarekin errespetuzko eta etorkinekin integratzailea da.





Mila esker!

Herritarren alde lan egi-teak buruhaustek eragiten dituela ezin ukatu, normalean nahiko genukeenera iritsi ezina sortzen zaigulako, denbora edo aurrekontu falta eta beste hainbat traba tarteko.

Hala ere eginkizun zoragarria dela aitortu beharrean nago, engantxatzen duen horietakoa, nahigabe guztien gaitetik herritarrekin eta herritarren zerbitzuan aritzeak asko betetzen nau.

Asmo eta ilusio handiagoz aurkezten gara zuen konfiantza eske, jakinik hasitako bideak denbora gehiago behar duela, atzean uzten ari garen zailtasun ekonomiko, politiko eta sozialen aroak, denon artean taxututako egitasmo hau gauzatzea ekarriko duelakoan. Beraz elkarrekin lanean jardungo dugulakoan, mila esker!

No se puede negar que trabajar en pro de la ciudadanía crea quebraderos de cabeza, ya que nos da la sensación de no llegar a aquello que quisiéramos, por falta de tiempo y presupuesto, entre otras trabas.

Aún así tengo que reconocer que es una tarea maravillosa, de las que enganchan, y que trabajar al servicio de la ciudadanía me llena por encima de todos los pesares.

Nos presentamos a pedir vuestra confianza con mayor ilusión, a sabiendas de que el camino iniciado necesita más tiempo y que la etapa de dificultades económicas, políticas y sociales que estamos dejando atrás, dará paso a este proyecto que hemos diseñado conjuntamente con la ciudadanía.

Por todo ello y esperando que sigamos trabajando codo con codo, ¡muchas gracias!

ehbildu

1. Koldo Agirre Mujika

2. Garbiñe Zurutuza Fernandez
3. Aitor Larburu Izagirre
4. Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal
5. Aitor Martin Urteaga Osinalde
6. Zezilia Herrador Garin
7. Sergia Garayalde Massó
8. Mikel Olano Genbe
9. Ainhize Lasa Oizartzabal
10. Gorka Apaolaza Lopez
11. Eli Aranburu Aizpuru
12. Jesus Mari Guzmán Raposo
13. Idoia Baztarrika Prieto
14. Pello Arroyo Anduaga
15. Maite Sukia Galparsoro
16. Fede Toledo Miguel
17. Maialen Arrieta Aseginolaza
18. Aitor Mujika Iraola
19. Irati Aldaz Mujika
20. Aitor Furundarena Usabiaga

